



FORU DEKRETUA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Zerga Araudiaren Zerbitzua
Esp. zk.: 322/2020

Onespena ematea aldaketa egiteari Arabako Foru Ogasunean zerga arloko zenbait izapide eta jardun egiteko emandako borondatezko ordezkari arautzen duen eta borondatezko ordezkarien erregistroa sortzen duen apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretuan.

Zergapekoei beren eskubideak erabiltzea eta zerga betebeharrak betetzea erraztu nahian, eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2006 Foru Arau Orokorraren 46. artikuluan xedatutakoa garatzeko (zergapekoek Zerga Administrazioaren aurrean borondatezko ordezkariaren bidez jarduteko aukera aurreikusten da), onespena eman zitzaion apirilaren 13ko 15/2010 Foru Arauari, zeinak Arabako Foru Ogasunean zerga arloko zenbait izapide eta jarduketa jardun egiteko emandako borondatezko ordezkari arautzen eta ordezkarien erregistroa sortzen baitu.

Foru dekretu honen helburua da aldatzea apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretuak (Arabako Foru Ogasunean zerga arloko zenbait izapide eta jardun egiteko emandako borondatezko ordezkari arautzen duen eta borondatezko ordezkarien erregistroa sortzen du) arautzen dituen ordezkari mailetako baten funtzionamendua.

Bestalde, borondatezko ordezkariaren gakoa lortzeko sistema erraztu nahi du.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen horrekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da nazioko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129. artikuluan arautzen baitu.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT



Artikulu bakarria. Aldaketa egitea Arabako Foru Ogasunean zerga alorreko zenbait izapide eta jardun egiteko emandako borondatezko ordezkari-tza arautzen duen eta borondatezko ordezkarien erregistroa sortu zuen apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretuan.

Bat. Aldatzen da 3. artikuluko 1. apartatuko B) letrako B.1) azpimaila. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“B.1) “Bi a) maila”: Ordezkari-tza maila horrek ahalmena ematen die ordezkari-ei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren honako jardun hauek guztiak egiteko, ordezkari-tuen orde-z:

a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitorenak eta autolikidazioak sinatu eta aurkeztu, haien izapidetze egoera kontsultatu, eta haien kopia balioduna inprimatu.

B) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagozkion ordezkari-tuen datu fiskalak kontsultatu eta, hala badagokio, datu horiek erabili zerga betebeharrak betetzeko. Ondorio horietarako, zerga datutzat hartuko da zergapekoari buruz Arabako Foru Ogasunak duen informazio guztia, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa egiteko zuzenean balio duena.

c) Aurreko a) letran aipatzen diren autolikidazioen ordainketa geroratzeko edo zatikatze-ko eskatu eta sinatu, bai eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean araututako zerga zorra konpentsatu edo beste edozein modutan azkendu ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak zerga zorra borondatezko dirubilketa al-dian egotea eskatuko du.

d) Aurreko a) letran aipatutako autolikidazioetatik datorren zerga zorraren ordainketa helbideratzeko eskaera egin.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak zerga zorra borondatezko dirubilketa al-dian egotea eskatuko du.

e) Autolikidazioetatik eta likidazioetatik sortutako zerga zorraren eta aurreko a) letran aipatzen diren zergen zehapenen ordainketa egin, Arabako Foru Ogasunak gaitutako edozein sistemaren bidez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak zerga zorra edo zehapena borondatezko dirubilketa al-dian egotea eskatuko du.

B.1) azpimaila honetan, ordezkari-tza mugagabea edo aldi baterakoa izatea aukeratu ahal izango da. Azken kasu horretan, borondatezko ordezkari-ak nahitaez zehaztu beharko du eskaeran ordezkari-tza zer ekitalditarako nahi duen.

Aldi baterako ordezkari-tzak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako al-dietan izango ditu ondorioak.

Aldi baterako ordezkari-tzaren balio epea sei hilabete-koa izango da, eskaera egiten denetik aurrera. Eskaera egiten denetik sei hilabete igaro ondoren, ordezkari-tza automatikoki iraungiko da.



Ordezkaritza azpimaila horretarako ez da beharrezkoa izango ordezkariak artikuluko honen aurreko letran aipatzen den "Bat maila" izatea.

Zergapekoek ordezkari bakar bati esleitu ahal izango diote azpimaila hori.

Ordezkaritza azpimaila horrek ez du zerikusirik artikuluko honetan aipatzen diren gainerako ordezkariak mailekin."

Bi. Aldatu egiten da 3. artikuluko 2. apartatua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

"2. Aurreko 1. apartatua adierazitako ordezkariak mailak aplikatzearen ondorioz, zergapekoek gehienez zazpi ordezkari izan ditzakete."

Hiru. Aldatu egiten da 6. artikuluko 1. apartatuko d) letra. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

"d) Ordezkariak gako sistema aukeratzen badu, honela jokatu da: ordezkariak, bide telematikoz, Arabako Foru Ogasunak horretarako ezarritako eskaera ereduak aurkeztuko du.

Arabako Foru Ogasunak gako bat bidaliko dio zergapekoari, eta hark, jaso ondoren, bere ordezkariari eman beharko dio.

Oro har, gakoak SMS bidez bidaliko da zergapekoaren telefono mugikorrera, eta pertsona fisikoen kasuan, Arabako Foru Ogasunari Zergadunen Erroldan dauden harremanetarako datuak zerga izapide guztietarako erabiltzeko baimena ematen diotenean.

Gakoa zergapekoaren jakinarazpen helbidera bidaliko da harremanetarako telefono mugikorrik ez dagoenean edo, pertsona fisikoen kasuan, Arabako Foru Ogasunari harremanetarako datuak erabiltzeko baimenik eman ez diotenean.

Zergapekoak ordezkariak gakoak bere ordezkariari jakinarazi ondoren eta hark bide telematikoz erregistratu ondoren, borondatezko ordezkariak ordezkariari eman zaiola ulertuko da."

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean; artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Gasteiz



Ramiro González Vicente

Diputatu nagusia
Diputado General

Itziar Gonzalo de Zuazo

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu
Saileko foru diputatua
Diputada Foral de Hacienda, Finanzas y
Presupuestos

María José Perea Urteaga

Ogasun zuzendaria
Directora de Hacienda